

Erakustaldia Kale Nagusian



Ehaziri edo bolilloen erakustaldia, Kale Nagusian.

Lehen ahaleginean ehazirien eta euskal jantzien erakustaldia eguraldiak galerazi bazuten ere, Salkinekoek ez zuten etsi. Bigarren eta azken ahalegina aurreko larunbat goizean izan zen. Eta irudietan ikusten denez, ikusmin handia piztu zuen oinezkoen artean.

Aurrekoan bezalaxe, aste-buru honetan ere merkatarien ekimen ezberdinen erdigune bilakatuko da Kale Nagusia. Itzala, Txindoki eta Irunberri tabernen artean musika nagusi izango da Zubiaurren etxearen parean, ostiralean eta larunbatean.



Asteburukoa Kabi merkatarien bilgunea aurkezteko baliatuko da. Kabi herrigune historikoari bultzada berezia emateko helburuarekin sortu da.

“Larunbatean euskaraz”, Karrikako ludoteka



Urtean zehar irteerak egin ohi dituzte Karrikako ludotekakoek.

2009-2010. ikasturtearekin batera aisialdi ekimenak martxan jarri dira. Horien artean “Larunbatean euskaraz” Karrikako ludoteka. 3-12 urte artekoek zuzenduta dago eta izenak dioen bezala larunbatero zabalik dago goizeko hamarretatik eguerdiko ordubatak arte.

Aurreko urteetan bezala ludotekaren oinarriak hauek izango dira: irteerak, jolasak eta tailerrak. Iaz, esaterako, Olentzeroren etxean, Aihur erleategian edota Basondoan izan ziren.

Ekimena herriko haur eta gaztetxo guztiei zuzenduta dago. Urte osorako matrikulazioa 25 eurokoa da. Informazio gehiagorako: 943 261 181.



Karrikako ludoteka.

Andoaingo Batzokiak elkarte guztien parte hartzea lortu du

Elkarteen arteko sukaldaritza jardunaldiak

Batzokia elkarte gastronomikoaren talde eragile berria Andoainean zerbait ezberdina antolatu nahian zebilela, ezusteko arrakasta izan duen ekimena proposatu diete herriko gainerako elkartei: jardunaldi gastronomikoak antolatzea.

Irailaren 24an hasi eta hila-betez Andoaingo elkarte guztiguztietako ordezkariak menu bana eskainiko dute Batzokian bertan. Ikusteko eta ikasteko saioak dira. Lehen astean Karrika eta Ontza elkarteak igaro ziren Batzokiko sukaldetik. Karrikakoak zurrurutuna prestatzen ari ziren bitartean, Andoni Baltasarrek Batzokiaren egitasmoa zein den azaldu zion Aiuuriri:

Lehen edizioa eta arrakasta erabatekoa izan da...

Andoni Baltasar. Hasiera batean gure kezka hori zen, ea elkartearen erantzuna zein izango ote zen. Azkenean elkarte guztiak inplikatu dira eta oso gustora gaude, bai.

Idea oso polita da, gainera.

A.B. Bai, herrian elkarte asko daudela ikusirik denen artean zerbait egitea pentsatzen ari ginen. Harreman handirik ez dago urte osoan eta hau aurrera atera dugulako oso pozik gaude.

Gonbidapena elkarte guztiei egin zitzaion eta denen erantzuna baiezkoa izan da.

Jardunaldiak martxan, taldeko eragile zaren aldetik zein da zure lehen inpresioa?

A.B. Etorri den jendea oso gustora dago, lehen eguna izanik nahiko pozik gaude.



Sukaldariak prestatzen ari direna jantokian ikus daiteke, kamara batek telebista erraldoian zuzenean emititzen duelako.

Elkarte bakoitzak lau pertsonentzat afaria prestatu behar du, ikusleek zozketa bidez sukaldariekin afaltzeko aukera izaten dute

Igor Zalakain Arzak jatetxeko sukaldaria ere etortzekoa da. Berak zer moduz hartu zuen ideia?
A.B. Oso ondo. Herrian eta herritarren artean sukaldaritza bultzatzeko ideia oso polita iruditu zitzaion. Hasieratik ere bere laguntza izan du. Berak, gainera, urriaren 30ean afaria prestatu beharko du gainerako sukaldarien baldintza berdinetan.

Sukaldaritza, I. jardunaldiak, Hurrengo hitzorduak Batzokian:

Frite de cordero extremeño.

Urriak 1, osteguna. 19:00.

Elkartea: Hogar Extremeño.

Entsalada epela, txitxarroa.


Urriak 2, ostirala. 19:00.

Elkartea: Errekaburu.

Sardina marinatua, bakailaoa.

Urriak 8, osteguna. 19:00.

Elkartea: Agustin Leitza.



JUANJO ZIGANDA & ELOY ARTOLAZABAL

Karrika elkarte, lehena. Zurrurutuna, mediana betea labean eta udareak ardotan jardunaldietan prestatu zen lehen menua. Pozik zeuden biak ala biak.

Lehenak izan zarete, pozik?

Eloy Artolazabal Bai, oso. Ondo antolatuta dago. Sukaldean aritzeko ere leku aproposa da. Balorazio positiboa egiten dugu, bai.

Zer moduz doa afaria?

E.A. Ondo, nire lankidea oso trebea da zopak prestatzen. Arrainarekin ere oso esku ona dauka. Batzurizopa, adibidez, ohikoa da gure elkartearen. Maiz egiten dugu, sobera geratu den ogi guztiarekin.

Eta ekimenaren inguruan zein iritzi duzu?

E.A. Oso ideia ona da, elkarteetako jendearen aldetik izan duen harrera ikustea besterik ez dago.

Menuetan aniztasuna dago, ni neroni etortzekoa naiz berriro. Ikustera eta probatzera. Trianakoek salmorejoa nola egiten duten ikusi nahi dut. Ez dut, gainera, inoiz probatu!



Batzokiko talde eragilearena izan da jardunaldiak antolatzeko ideia. Irudian, ezker eskuin: Joxe Manuel Oiarzabal, Andoni Baltasar eta Antonio Guedejo. Sukaldariaren keinua egiten ari dira, ekimena iragartzeko agertzen den karteletako keinu berdina.